

Gure enpresak industria aeroespazialean merkaturatuko da. Industria horretan zenbait enpresek hegazkinetarako osagai ezberdinak sortzen dituzte, esate baterako, Aernnova. Horiek, bere produktua beste enpresa bati saltzen diote, adibidez, Boeing, Airbus, Beechcraft, Gulfstream edo Bombardier. Horiek Aernnova edo Rolls Royce Holdings bezalako beste enpresei osagaiak erosi ondoren hegazkina muntatzen dute. Sipleki azalduta, Aernnova puzzle baten pieza da eta pieza horrekin eta beste askorekin Bombardier, edo arestian aipatutako beste edozein enpresak, puzzlea osatzen dute.

Merkatu horretan, Olympus Aviation enpresaren bezeroak hegazkinak eraikitzen dituzten enpresak dira, hau da, guk puzzle baten pieza bat garatuko dugu, konkretuki hegazkinaren motorra, horregatik gure bezeroak hegazkina montatzen duten horiek izango dira. Dena den, gure hasierako helburua naturarekiko ardura erakutsi duten enpresak dira. Esate baterako, Airbus; izan ere, 2012. urtean egindako hegazkintza goi-bileran esan zuten hegazkin iraunkorrak beharrezkoak zirela. Nolanahi ere, beraiek erabiltzen dituzten motorrak ez dira horren alde.